## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-5730

AGINDUA, 1997ko urriaren 27koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Honen bidez, musika-ikasketak eta araubide orokorrekoak batera egin ahal izateko modua eskainiko da Musikako erdi-mailako lehen bi zikloetan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, urriaren 27ko 288/1992 Dekretuak ezarritakoari jarraituz.

Hezkuntza-administrazioek, LOGSEko 41. artikuluari jarraituz, eskuhartzeko modua dute musika- eta dantza-ikasketak eta araubide orokorreko irakaskuntza aldi berean egiteko modua izan dezaten ikasleek. Bien arteko koordinazioa egon dadin, beraz, ikasketa horiek antolatu eta ordenatzerakoan egoki iritzitako neurriak har ditzakete, baita gaiak baliokidetzeko neurriak ere. Era berean, bi irakaskuntza hauek bateragarriak izan daitezen, curriculumak ere egokitu daitezke, ekainaren 26ko 756/1992 Errege Dekretuak 3. xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Urriaren 27ko 288/1992 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoan Musika irakasteko curriculuma ezartzen du eta, bertan ezarritakoa oinarritzat hartuta, 1996ko uztailaren 16ko Aginduan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketa-antolamenduan ikasleak ze gai aukera ditzakeen arautzen da. Bietan ezarritakoaren arabera, DBHko lehen zikloaren curriculum-aukerakotasuna eta Musikako erdi-mailako lehen zikloa baliokidetu egin daitezke eta gauza bera gertatuko da DBHko bigarren zikloaren eta Musikako erdi-mailako bigarren zikloaren artean.

Urtarrilaren 23ko 25/1996 Dekretuak (urtarrilaren 26ko EHAA) ezarritakoari jarraituz eta DBHko irakaskuntzari dagokionez bertan aurreikusitakoa betetzeko, honako hau,

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Aukerakotasun-eremuak baliokidetzea.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bi zikloetan aukerakotasun-eremuak eta Musika-irakaskuntzako erdi-mailako lehen bi zikloetako ikasketak elkarrekin baliokidetu ahal izango dira, honako arau hauei jarraituz:

1.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Lehen Zikloa.

Musika-irakaskuntzako erdi-mailako lehen zikloa gaindituta duten ikasleek, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Lehen Zikloan dagoen aukerakotasun-eremua baliokidetzea eskatu ahal izango dute.

2.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Bigarren Zikloa.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-5730

ORDEN de 27 de octubre de 1997, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se desarrollan las medidas tendentes a facilitar la simultaneidad de los estudios de Música y del régimen general contemplada en el Decreto 288/1992, de 27 de octubre, en lo referido a los dos primeros ciclos de Grado Medio de Música y a la Educación Secundaria Obligatoria.

La LOGSE, en su artículo 41 habilita a las administraciones educativas para adoptar medidas que faciliten al alumnado la posibilidad de cursar simultáneamente las Enseñanzas de Música y danza y las de régimen general, medidas que pueden ser de coordinación respecto a la organización y ordenación académica de las mismas, incluidas las convalidaciones. El Real Decreto 756/1992 de 26 de junio en su disposición adicional 3..ª, añade a estas medidas la posibilidad de adaptaciones curriculares con el mismo objetivo de facilitar la simultaneidad entre ambos tipos de estudios.

Por su parte, el Decreto 288/1992 de 27 de octubre, que establece el currículo de las Enseñanzas de Música en la Comunidad Autónoma y, en su cumplimiento, la Orden de 16 de julio de 1996, que regula las posibilidades de opción en el currículo de la Educación Secundaria Obligatoria, disponen que la opcionalidad curricular del Primer Ciclo de Secundaria Obligatoria se podrá convalidar con el Primer Ciclo del Grado Medio de Música y la del Segundo Ciclo de Secundaria Obligatoria con la del Segundo Ciclo del Grado Medio de Música.

Con la finalidad de dar cumplimiento a tales previsiones en lo que respecta a las enseñanzas de ESO, implantadas por el Decreto 25/1996 de 23 de enero (BOPV de 26 de enero),

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Convalidación de los espacios de opcionalidad.

Los espacios de opcionalidad de los dos ciclos de Educación Secundaria Obligatoria se podrán convalidar con las enseñanzas de los dos primeros ciclos de Grado Medio de las Enseñanzas de Música, en aplicación de los normas siguientes:

1.– Primer Ciclo de Educación Secundaria Obligatoria.

Los alumnos que tengan aprobado el Primer Ciclo del Grado Medio de las Enseñanzas Musicales, podrán solicitar su convalidación por el espacio de opcionalidad del Primer Ciclo de la Educación Secundaria Obligatoria.

2.– Segundo Ciclo de Educación Secundaria Obligatoria.

Musika-irakaskuntzako erdi-mailako bigarren zikloko lehen maila gaindituta duten ikasleek, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailan dagoen aukerakotasun-eremua baliokidetzea eskatu ahal izango dute.

Musika-irakaskuntzako erdi-mailako bigarren zikloa gaindituta duten ikasleek, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan dagoen aukerakotasun-eremua baliokidetzea eskatu ahal izango dute.

Beraz, ikasle batek musika-ikasketak bukatu gabe laga eta mailaren bateko gairen bat edo batzuk gainditu gabe utziz gero, DBHn dagokion zikloan edo mailan aukerakotasun-eremu osoa bete beharko du.

3.– Aldi berean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta araututako Musika-ikasketak egiten diharduten ikasleek, musika-ikasketak kontuan har ditzatela eskatu ahal izango dute Institutuko Zuzendaritzan aukerakotasun-eremua egin beharrik ez izateko baina, beti ere, musika-maila edo ziklo osoa gainditu eta baliokidetzekotan.

4.– Musikako erdi-mailan egonda, musika-ikasketak berandu hasi dituelako edo mailaren bat errepikatu duelako DBHn dagokion mailarekiko atzeratua dagoen ikasleak DBHko mailako aukerako gai guztiak egin beharko ditu.

*2. atala*.– Gaiak baliokidetzeko prozedura.

Lehen artikuluan adierazitako kasuetakoren batean egonda, ikasleak aukerakotasun-eremua baliokidetzeko edo eremu hori egin beharrik ez izateko eskatu ahal izango du, hala nahi izanez gero, DBH egiten ari den ikastexe publikoaren Zuzendaritzan. Ikastetxe pribatuetan ikasten diharduen ikasleak, berriz, bere ikastetxea zein zentro publikori dagoen lotuta, haretxi eskatuko dio bertako Zuzendaritzaren bitartez. Zentro publiko bati lotuta ez dauden ikastetxeetako ikasleek, dagokion Hezkuntz Lurralde Ordezkaritzan aurkeztuko dute eskabidea. Horretarako, musika-ikasketak gainditu dituela edo ikasketak egiteko matrikula egin duela adierazteko ziurtagiria aurkeztu beharko du, bere egoera zein den. Ziurtagiria erdi-mailako musika-ikasketak egiteko Musika Kontserbatorioak edo baimendutako musika-zentroak egin beharko du.

Ikastetxe publikoetan zein Ikastetxe publiko bati lotuta dauden Ikastetxe pribatuetan, Ikastetxe publikoaren Zuzendariak onartuko du baliokidetasuna. Ikastetxe publiko bati lotuta ez dauden Ikastetxe pribatuetako ikasleei berriz, Lurralde Ordezkariak onartuko die, 1. Artikuluan aipatzen den prozedura jarraituz.

Baliokidetasun hori ikaslearen ikasketa-espedientean eta Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-liburuan jasoko da, idazkariak izenpetutako diligentzien bidez. Kalifikazio-agirietan, aukerako gaiei dagokien tokian honako hau idatziko da: «Baliokidetua(k), Musika-ikasketetako erdi-mailako ........... (dagokion maila edo zikloa) egina izateagatik».

Los alumnos que tengan aprobado el primer curso del Segundo Ciclo del Grado Medio de las Enseñanzas Musicales, podrán solicitar su convalidación por el espacio de opcionalidad del tercer curso de la Educación Secundaria Obligatoria.

Los alumnos que tengan aprobado el Segundo Ciclo de las Enseñanzas Musicales de Grado Medio, podrán solicitar su convalidación por el espacio de opcionalidad del Segundo Ciclo de la Educación Secundaria Obligatoria.

Consiguientemente, el alumno que abandonase la enseñanza musical dejando pendiente alguna o algunas asignaturas de un determinado curso deberá realizar la optatividad completa del correspondiente ciclo o curso de ESO.

3.– Los alumnos matriculados simultáneamente en cursos correspondientes de Educación Secundaria Obligatoria y Enseñanzas Musicales regladas, podrán solicitar de la Dirección del Instituto les sean computadas las Enseñanzas Musicales a los efectos de no tener que cursar el espacio de opcionalidad, y a la espera, en todo caso, de su convalidación, una vez superado el ciclo o curso completo de Música.

4.– El alumno que en el Grado Medio de Música esté atrasado respecto al correspondiente curso de ESO, sea por haber iniciado aquel con retraso, sea por haber repetido, deberá realizar la optatividad del curso correspondiente de ESO.

*Artículo 2*.– Procedimiento de convalidación.

El alumno interesado, que se encuentre en cualquiera de los supuestos contemplados en el Artículo 1, solicitará la convalidación o liberación del espacio de opcionalidad, a la Dirección del centro público en el que curse la ESO. En el caso de alumnos que cursen la ESO en un centro privado, la convalidación se solicitará a la Dirección del centro público al que se encuentre adscrito, y en el caso de Centros no adscritos, a la Delegación Territorial de Educación correspondiente. Asimismo, se presentará el certificado académico acreditativo de la superación de las Enseñanzas Musicales o el de matriculación en las mismas, según su situación, expedido por el Conservatorio de Música o Centro autorizado de Grado Medio correspondiente.

La convalidación será concedida por el Director del Centro Público, en el caso de alumnos de Centros Públicos o Centros Privados Adscritos, o por el Delegado Territorial, en el caso de alumnos de Centros Privados no Adscritos, en aplicación de los criterios señalados en el Artículo 1.

De ella quedará constancia en el expediente académico personal y en el Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica mediante las correspondientes diligencias firmadas por el secretario. En las actas de calificación , en la casilla correspondiente a las materias optativas, figurará la expresión: «Convalidada(s) por el ...... (expresión del ciclo o curso de que se trate) de Grado Medio de música».

DBH eta Musika Ikastetxeek beharrezkoak diren koordinazio- eta jarraipen-neurri guztiak hartuko dituzte, Agindu honetan araututako baliokidetasunak bete daitezen. Dena den, kontuan izan behar dute beti bi irakaskuntza horietako bakoitzak bere ebaluaketa izango duela eta ez direla bata bestearen oztopo edo determinatzaile izango ebaluaketan.

*3. atala.–* Musika-alorreko curriculum-egokitzapenak.

1.– Araututako musika-ikastetxeetan matrikulatuta dauden ikasleek Musika-alorra egokitzeko eskatu ahal izango diote Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeko zuzendaritzari.

2.– Aipatutako egokitzapena, ekainaren 21eko 213/1994 Dekretuaren (EHAA abuztuaren 17an) I. eranskinean agertzen diren ezagupenak eta ebaluaketa-irizpideak kontuan hartuta egingo da, dekretu horretan ezartzen baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculuma. Egokitzapena egiterakoan, ikasleak egin duen edo egiten diharduen Musika Irakaskuntzaren curriculum barruan ez dauden ezagupenak baino ez dira sartuko.

3.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeko musika-alorreko irakasleak/ek egin behar du/dute egokitzapen hori. Horretarako baina, Musika irakasteko zentroan egindako txostena beharko da eta, Hezkuntza Ikuskaritzak txostena egin ondoren, Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde Agintaritzan aurkeztuko da, hala badagokio, onartua izan dadin.

*4. atala.–* Gorputz Heziketa-alorreko curriculum-egokitzapenak.

1.– Araututako musika-ikastetxeetan matrikulatuta dauden ikasleek gorputz-heziketaren alorra egokitzeko eskatu ahal izango diote Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeko zuzendaritzari. Egokitzapen hori dagokion Mintegian edo Sail didaktikoan diharduten irakasleek egin beharko dute, dagokion Musika Ikastetxeak igorritako txostena kontuan hartuta, urriaren 27ko 288/1992 Dekretuaren 26. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeko gorputz-heziketaren alorreko irakasleak/ek egin behar du/dute egokitzapen hori. Horretarako baina, Musika irakasteko zentroan egindako txostena beharko da eta, Hezkuntza Ikuskaritzak txostena egin ondoren, Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde Agintaritzan aurkeztuko da, hala badagokio, onartua izan dadin.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen deneko hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1997ko urriaren 27a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

Los centros de ESO y de Música establecerán las medidas de coordinación y seguimiento precisas para el cumplimiento de las convalidaciones que regula esta Orden, considerando en todo caso que la evaluación de ambas enseñanzas será independiente, no pudiendo ninguna de ellas ser considerada condicionante ni determinante de la evaluación de la otra.

*Artículo 3.–* Adaptaciones curriculares en el Área de Música.

1.– Los alumnos matriculados en Centros de Enseñanzas Musicales regladas podrán solicitar a la Dirección del Centro de Educación Secundaria Obligatoria la adaptación curricular del Área de Música.

2.– Dicha adaptación, partiendo de los objetivos, contenidos y criterios de evaluación que figuran en el anexo I del Decreto 213/1994, de 21 de junio (BOPV de 17 de agosto), por el que se establece el currículo de la Educación Secundaria Obligatoria, se centrará únicamente en aquellos aspectos que no figuren en el currículo de las Enseñanzas Musicales que haya realizado o esté realizando el alumno.

3.– La elaboración corresponderá al profesor o profesores que impartan el Área de Música en el Centro de Educación Secundaria Obligatoria, debiendo contar con el informe del Centro de Enseñanzas Musicales, y será presentada para su aprobación, si procede, previo informe de la Inspección Educativa, por la Jefatura Territorial de Renovación Pedagógica.

*Artículo 4.–* Adaptaciones curriculares en el Área de Educación Física.

1.– Los alumnos matriculados en Centros de Enseñanzas Musicales regladas podrán solicitar en el Centro de Educación Secundaria Obligatoria la adaptación curricular del Área de Educación Física, que deberá ser realizada por los profesores del Seminario o Departamento didáctico correspondiente, teniendo en cuenta el informe que les remita el Centro de Enseñanzas Musicales correspondiente, en cumplimiento de lo dispuesto por el artículo 26 del Decreto 288/1992 de 27 de octubre.

2.– La elaboración corresponderá al profesor o profesores que impartan el Área de Educación Física en el Centro de Educación Secundaria Obligatoria, debiendo contar con el informe del Centro de Enseñanzas Musicales, y será presentada para su aprobación, si procede, previo informe de la Inspección Educativa, por la Jefatura Territorial de Renovación Pedagógica.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de octubre de 1997.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.